

IRU TXULO 07.03.97

**auzoz auzo** •

**herrera**

# Emakumeek sarrera zabalik

**H**errera Kirol Elkarteak erabaki txalogarria hartu du, hain zuzen ere, emakumeekiko zuen portaera aldatzearena. Emakumeek ezin izan dute sekula modu normalean parte hartu elkarte honetan, elkartean sartzea bera ere aste buruetan bakarrik baimentzen zitzaielarik. Hau horrela izan da urte askotan, baina zorionez, gizona nagusitza bertan behera gelditu da alde batetik auzoko emakumeek egin duten presioagatik (bertan familia osoen parte hartzea murriztuz) eta bazkide berriek parte hartu ahal izateko.

## **Erabakia dela eta, zuzendaritza larri**

Hain erraza ematen duen erabakia borroka eta istilu ugari ekarri dizkie elkarteko bazkideei, beraien arteko haserreak sortuz eta zenbait kasutan elkarteko zuzendaritza bera ere kinka larrian jarritz.

Herrera Kirol Elkarteak 50 urte betetzen dituenean, auzoko emakumeek hartu dute nagusitasuna eta bertan, parte hartzaileen sexua alde batera utzirik pertsonak dute hitza.



Argazkia: Oier Los Santos

Herrera kirol elkarteak 50 urte bete behar izan ditu emakumei eskubide osoz sartzen uzteko.

**Mendi-Zaleak elkarteak** hileko mendi ibilaldia proposatzen digu iganderako, hilak 9. Ibilaldia Zumbeltz benta, Dulantz, Etxarriko Harriak eta Irantzu monastegira izango da. San Luis plazatik aterako da 07.30etan eta prezioa 1.300 pezetakoa izango da.

